

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

A eredua

- **Idatzizko azterketak bi proba ditu.**
- **3h 10 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p>IRAKURMEN PROBA</p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez.</p>	60-70 min.	20	10
<p>IDAZMEN PROBA</p> <p>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p>	120 min.	30	15

- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zeuretzat da.**
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun aparteko orrietan egin.
- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

4. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa: aukera anitzeko galderak

Irakurri ondorengo testua eta erantzun testu horri buruz jarraian egiten zaizkizun galderei.
 Markatu erantzuna. Bakarra da zuzena.

GURASOAK ETA SARE SOZIALAK

Zaila da sozializazio teknologikoaren diskurtsoa zedarritzea; izan ere, etxeko ordenagailua toki komun batean jarri behar dela esaten diegun bitartean, ikasturtea hasterako gazte gehienek sakelako aparatuekin euren artean uneoro konektatzeko aukera izango dutelako.

Gure seme-alabak elkarreragile digitalak dira, 2.0 belaunaldikoak. Mundu digitaleko partaide aktiboak dira, eta, taldean zein banaka, badihardute, bertakoak dira. Sare sozialetan proiektu komun eta globalizatuen parte dira, eta gainera, elkarrizketak, ezagupenak, bizipenak eta baliabideak ere partekatzen dituzte. Gu lehen mailako generazio digitalaren (1.0) belaunaldikoak gara eta gure erabilpena pasiboa eta banakakoa izan da; zaila da, beraz, gure ikuspegitik jokamolde hau ulertzea eta barneratzea.

Ezin ditugu gutxiagotu edo arbuiatu hedabideetan hain sarri aipatzen diren sare sozial berrien erabilera oker edota gehiegikeriaren arrisku argiak; baina, era berean, ihes egin behar dugu gehiegizko zigor zein neurritz gainera goraiamenetik. Egokiago iruditzen zaigu, alternatiba hezigarri eta prebentibo legez, gure seme-alaben hezkuntzaz dagoeneko dakizkigun edo behintzat hobeto ezagutzen ditugun oinarritzko gaiak aplikatzea teknologia berrien mundura eta, zehazki, sare sozialen erabilpena.

Aintzat hartu gure guraso-funtzioek garamatzatela, besteak beste, beraien oinarritzko beharrak (batez ere emozional eta afektiboak) asetzera, eurak babestera eta alderdi orotan egoki garatzera; era berean, garatu egiten ditugu ulertzeko, erabakitze eta irtenbidea aurkitzeko gaitasunak: bai eguneroko egoera zein arazoetarako, bai gatazketatik eratorritakoetarako. Teknologia berrien eguneroko erabilpenari dagokionez, sare sozialen mundu hain berezi honetarako jokaera-ereduak sustatu behar ditugu; hain zuzen ere, une eta egoera bakoitzean egokiena dena bereizteko garatu ditugun gaitasun eta abilezia berberak aplikatuz transmititzen direnak.

Gure seme-alabentzat ingurune digitala ez da soilik denborapasa, ezta soilik teknologien kontu bat ere. Ingurune digitala beren egunerokotasunean murgildua dago: beren komunikatzeko, harremanak izateko, egiteko eta sentitzeko moduan. Horrek guztiak (teknologiak, sare sozialak...) gurasooi ere eragiten digu: ondo erabiltzen laguntzea eskatzen digu, ez dugu halakoei muzin egiterik eta, gainera, interesa agertu beharrean gara bai ingurune horretan emandako lehen urratsak direla, bai ingurune horretan emandako lehen bizipenak direla.

Ez dugu ahaztu behar beraientzat erreferentzia garela, jokaera-eredua, eta hori soilik autoritatetik transmiti daitekeela. Jakin egin behar da balio duena eta balio ez duena identifikatzen lagunduko dion arau-sistema ezartzen, diziplina eragile batek erregulatuta; horretarako, bi aspektu hartu behar dira kontuan: batetik, guraso eta seme-alaben artekoa ez da berdinen arteko harremana, gurasoek seme-alabenganako hezkuntza-autoritatea baitute; bestetik, harremanaren oinarrian parte-hartzea, zaintza, elkarrizketa, sendotzea eta zigorra daude.

Bizitzako eremu guztietan dauzkagu arauak, eta, lankidetzaz sustatzeaz gain, gehiegikeriak ere saihesten dituzte. Arau horiek familian ikasten dira batez ere (eskolan ere bai). Teknologia berriei, eta zehazki sare sozialei dagokionez, erabilpen, ordutegi, edukien kontrol eta abarrekin zerikusia duten arauak dira. Gure seme-alaben adina eta beste hainbat faktoreren arabera aplikatuko dira. Gainera, gaur egun badago gurasoentzako sare sozialei buruzko informazio ugari: funtzionamendua, erabilpen-arauak, sareen alde iluna) eta aukerak. Informazio hori erraz topa daiteke.

Gizakiok sozialak gara izatez, besteekin harremanak izateko beharra dugu, eta hori da sare sozialen indargunea. Baina horrek ez du esan nahi gure eta gure seme-alaben bizitzako kontu guztiak aireratu behar ditugunik. Sare sozialen oinarriak ezagutu behar ditugu, baina ez daukagu zertan adituak izan. Garrantzitsuena arazoei aurre hartu eta esku hartu ahal izateko beldurra kentzea da.

Beraiekin ordenagailu aurrean denbora partekatzeak lagundu egingo digu ezagutza eta konfiantza hartzen eta baita gure seme-alabek behar duten pribatutasuna errespetatzen ere. Hitz egitea funtsezkoa da. Sarean modu aktiboan parte hartzen eta gure seme-alabak babesteko eta haiei konfiantza emateko estrategiak eta abileziak garatzen ikasi behar dugu.

ARRIZABALAGA, G.: *Administrazioa euskaraz*, 70. zk., 2010eko urria. Egokitua.

- 1. Zergatik kostatzen da hainbeste sare sozialen inguruko diskurtsoa zehaztea?**
 - a) Gurasoen sare sozialekiko teoria eta praktika ez datozelako bat.
 - b) Teknologia izugarri aurreratzen denez, gurasoek ez dutelako gaitasunik hori guztiori irensteko.
 - c) Gurasoek baliabideen erabilera pasiboa egiten dutenez, nekez uler dezaketelako besterik.
- 2. Gurasoek ezagutzen dituzte gaur egungo sare sozialak?**
 - a) Bai, baina oso azaleko ezaguera da; eta partehartzea, ezdeusa.
 - b) Bai, aktiboki erabiltzen dituzte, baina beren ezaguera gaurkotu beharrean dira.
 - c) Bai, baina banakako erabilera seguruago delakoan, nahiago dute sare sozialetan ez aritu.
- 3. Zer baliatu behar dute gurasoek sare sozialen inguruko diskurtsoa eraikitzeko?**
 - a) Bizitzan jasotako oinarritzko jakituria eta eskarmentua.
 - b) Hedabideetan askotan agertzen diren erabilera txarren eta arriskuen ohartarazpenak.
 - c) Teknologia berriek beraiek eskaintzen dizkiguten onurak eta abantailak.
- 4. Nola jokatu behar dute gurasoek inguru digitalarekiko?**
 - a) Garrantzirik ez daukala pentsatu arren, axola zaiela erakutsi behar dute.
 - b) Erabilera sustatu behar dute, erabilera erabat librea eragotzi arren.
 - c) Ezinbestekoa dute seme-alaben aurretik aritzea, erreferentetzat hartzea nahi badute.
- 5. Zer hartu behar da oso kontuan gurasoen eta seme-alaben arteko joko-arauak definitzean?**
 - a) Ahalik eta adostuena izatea bi aldeen artean, bi aldeen onespenerekin.
 - b) Berdinen arteko harremana bermatzea, bi aldeek zerk balio duen eta zerk ez ezartzeko.
 - c) Gurasoak eta seme-alabak ez daudela maila berean, gurasoek agintea daukatela seme-alaben gainean.
- 6. Nola aldatuko dira sare sozialen joko-arauak?**
 - a) Gurasoen maila eta ezagutza teknologikoa kontuan izanik.
 - b) Seme-alaben adinaren arabera, kasu.
 - c) Gurasoentzako sare sozialei buruzko informazioa kontuan hartuta.
- 7. Zer ikasi behar dute bereziki gurasoek?**
 - a) Seme-alaben jardunaz fidatzen eta konfiantza handiagoaz tratatzen.
 - b) Mundu digitaleko partaide aktibo izaten.
 - c) Sare sozialetako harremanen pribatutasuna gordetzen.
- 8. Nola laburbilduko dugu ondoen testua?**
 - a) Sare sozialak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira gaur egun, baina askorentzat ia ez dira existitu ere egiten. Azken horiek egunean jarri beharra daukate, ikasi, eta jokaera-arau batzuk ezarriaz batera, sozializazio teknologikoaren diskurtsoa zedarritu.
 - b) Gurasoen eginkizunetako bat bada seme-alabak ondo hezteko bizitzarako, baina bada esparru bat behar bezala menderatzen ez dutena: Internet. Ahalegin berezia egin beharra daukate eguneratzeko eta hor ere seme-alaben erreferentzia izateko.
 - c) Gurasoentzat ez da erraza sare sozialen inguruko arauak ezartzea seme-alabei, batez ere mundu hori arrotz egiten zaielako. Baina baliatu beharra daukate guraso gisa daukaten esperientzia sare sozialetara eta seme-alabengana gerturatzeko.

■ **2. ariketa: aukera anitzeko galderak**

Irakurri ondorengo testua eta erantzun testu horri buruz jarraian egiten zaizkizun galderei.
 Markatu erantzuna. Bakarra da zuzena.

OINEZKO IZATEA, ESKUBIDEA

Bilbon mugikortasunak sortzen dituen ingurumen-arazoez eta desberdintasun sozialek jatorrian oinarri berbera dute. Hori da Bizkaiko Ekologistak Martxaneko garraio-sailak egindako proposamenaren –*Mugikortasuna, desberdintasun sozialak eta ingurumena*– oinarri teorikoa. Horren arabera, hiritarrek beren mugikortasuneko beharrak nola asetzen dituzten ulertzeko hiru aldagai hartu behar dira kontuan: errenta ekonomikoa, generoa eta adina. Peatonalizazio-politika berriei ekitea ez da mentalitate- edo heziketa-arazoa; mugikortasuna beste era batera antolatzea da gakoa.

“Tradizionalki, garraioaren gainean egin izan diren azterketetan gauza bi analizatu dira: zertarako mugitzen garen (lanerako, aisiarako, erosketetarako...), eta zer garraiobide erabiltzen dugun mugitzeko behar hori asetzeko”, azaltzen dute txostenaren egileek. Ikuspuntu horrek gabezia bi dauzka haien ustean: batetik, ez ditu kontuan hartzen “ofizialki” produktiboak ez diren baina behar espezifikoak dauzkaten sektoreak (edadeko jendea, etxeko andreak, langabetuak...); eta, bestetik, kanpoan uzten ditu batere mugitzen ez direnak edo oso lekualdatze laburrak egiten dituztenak. Azken horiek biztanleriaren zati esanguratsua dira: Bilbon, % 19. Gehienak 55 urtetik gorako emakumeak dira, ordaindutako lanposturik gabekoak eta, kasu askotan, mugikortasun-arazo handiak dauzkatenak euren auzoen egitura dela eta. Garraioari dagokionez, “ikusezinen kolektiboa” osatzen dute.

Baina zelan mugitzen dira bilbotarrak? Hirian bertan egiten diren lekualdatzeen erdia baino gehiago oinez egiten dira. Erraz igartzen da zein den oinezkoaren perfila: emakumea, gaztea zein adinekoa, errenta txikikoa. Autoaren erabilera, berriz, “bazerrekoa da”, Ekologistak Martxaneko Enrique Antolinen ustez. Besterik da, noski, hiritik irteteko edo bertara sartzeko, kotxez egiten diren bidaiak.

Nolanahi ere, eta lanegun batean Abando edo Indautxu auzoetan ibili den edonork kontrakoa pentsatuko duen arren, Antolinen iritziz ezin daiteke esan Bilbo autoen menpeko hiria denik. Izan ere, hirira sartzeko den auto kopurua gutxitu egin da azken urteotan, baina ez garraio-politika egoki bati esker, guztiz aurkakoa baizik: biztanleriaren zati handi bat hiriburutik inguruko herrietara joan da, kasu askotan garraio publiko eskasa duten dentsitate baxuko auzuneetara, eta aisialdirako gune nagusiak ere periferian kokatu dira. Merkataritza-zentro erraldoiek auto pribatuaren joan-etorri kopuru eskerga eragiten dute, baina Bilbora sartu beharrean, hura inguratu egiten dute autook.

Horrek ez du esan nahi Bilbo pagotxa denik oinezkoentzat. Sortu dira haientzat espazioak, egia, baina ikuspegi jakin baten arabera, Antolinek esplikatu digunez: “Arazo nagusia da, gezurra badirudi ere, oraindik finkatzeke dagoela garraioari buruzko teorizazioa. Ez daukagu oso argi zer ote den ‘garraiatze’ delako hori. Beraz, zer oinarri teoriko eman behar diogu peatonalizazioari? 70eko hamarkadan, Italian eta Alemanian batik bat, peatonalizazio-prozesuak hasi zirenean, kontzeptuak oso ezaugarri zehatzak zituen: espazio atseginak sortzea zen helburua, merkataritzari eta aisiari lotuta. Horixe iritsi zaigu”.

Bilbon dezente peatonalizatu da, baina aipatu berri ditugun irizpide horien arabera. Sekula ez da pentsatu, dio Antolinek, peatonalizazioa tresna bat izan behar dela hiri barruan mugitzea errazteko. Eta hori da Ekologistak Martxaneko proposamenaren xedea. “Oinez ibiltzea bada mugitzeko gehien erabiltzen den bitartekoa, antola dezagun Bilbo horren arabera. Hala, ‘oinetzkoentzako espazioa’ kontzeptutik salto egin dugu ‘oinetzkoentzako sarea’ kontzeptura”.

Antolinek aipatutako saltoak hiria ulertzeko beste modu bat dakar. “Bestelako ibilbideak behar dira, ezaugarri jakinak dauzkatenak: igogailuak, aldapak arintzeko bestelako gailuak, garraio bide osagarriak, intermodalitatea, jesarlekuak...”. Elkarrekin topo egiteko gune hutsetik harago doan zerbait, azken batean. “Hortxe kokatu nahi dugu eztabaida”, dio Ekologistak Martxanekoak; “bada datu esanguratsu bat: Bilbon peatonalizatu diren espazioen %41 Abandon dago”. Erdigune aberatsean, hortaz. Turistak erakarri nahi dituen Bilbo berri horretarako gune egokiak dira, ez bairik gabe. Dendak eta tabernak erruz daude Bilbok oinezkoentzat “gorde” dituen kale horietan.

Hala eta guztiz ere, Ekologistak Martxanek proposatzen duen oinezkoentzako sarea hiriko maparen gainean behatuta, berehala ikusten da dentsitate handieneko gunek erdialdean daudela, hain justu. Honela azaldu digu Enrique Antolinek: “Hirian egiten diren oinezko desplazamenduak aztertuta, ohartu ginen auzoetatik erdigunera –edo alderantziz– zihozenak direla nagusi; periferiako auzoen arteko joan-etorri gutxi dago. Hala, orain existitzen diren egituretatik abiatuta hasi ginen proposamena gorpuzten”. Modu agian simple samarrean esanda, aurrez sortutako “espazioak” elkarrekin lotu eta “sarea” sortu dute.

Hori guztia, mementoz, teorian egin dute, maparen gainean. Urte bi daramatzate lanean eta laster argitaratuko dute proposamenaren bertsio berriua, osatuagoa. Bitartean, den-dena teoria hutsalean gera ez dadin saiatzeko ari dira, hainbat eragilerekkin bilduz.

BREA, U. *Argia*, 2010eko azaroa. Egokitua.

1. **Zer diote Bizkaiko Ekologistak Martxan taldekoek egin duten proposamenean?**
 - a) Bilboko mugikortasun-arazoen jatorrian ingurumen-arazoak eta gizarte-bereizketa daudela.
 - b) Beste peatonalizazio-politika batzuei ekiteko beharrezkoa dela mugikortasunaren antolaera aldatzea.
 - c) Hiritarren mugikortasuneko beharrak asetzeko pentsamoldea eta heziketa aldatu behar direla.
2. **Zer kritika egiten diete Ekologistak Martxanekoek garraioaren gaineko azterketa tradizionalari?**
 - a) Mugitzeko erabiltzen ditugun garraiobideak ez daudela deskribatuta xehe-xehe azterketotan.
 - b) “Ikusezinen kolektiboa”ren pisua ez dela ondo neurtzen azterketotan.
 - c) Zenbait alderdi esanguratsu ez dituztela aintzat hartzen azterketotan.
3. **Nolako kolektiboa da Bilbon oso lekualdatze laburrak egiten dituztenena?**
 - a) Bilboko bizilagun guztiak kontuan izanik zati ezdeusa baino ez dute osatzen.
 - b) Nahikoa ondo asebeteta dauzkate mugikortasunaren aldeko beharrak.
 - c) Soldatarik gabeko lanean aritzen diren helduak, mugitzeko arazoekin asko.
4. **Nola mugitzen dira Bilboko biztanleak?**
 - a) Hiri barnean, oinez gehiago ibiltzen dira beste edozein garraiobidetan baino.
 - b) Autoa batez ere bazterreko joan-etorrietarako erabiltzen dute.
 - c) Erdigunerako desplazamenduetarako garraio publikoan joaten dira.
5. **Proposamengileen arabera, zergatik sartzen dira orain auto gutxiago Bilbora?**
 - a) Bilbon gauzatu den garraio-politika ez delako batere egokia izan.
 - b) Bilboren inguruko auzune gehienek garraio publikoko sistema ona daukatelako.
 - c) Bilbotar gehienek erosketak merkataritza-gune erraldoietan egiten dituztelako.
6. **Zer dio Enrique Antolinek oinezkoentzako espazioen gainean?**
 - a) Peatonalizazio hitzaren esanahia estuegi lotzen zaiola autoak kaleetatik kentzeari.
 - b) Ez dagoela behar bezala zehaztuta zer den garraiatzea, eta, ondorioz, peatonalizazioa ere ez.
 - c) Peatonalizazio-prozesuen xedea gune ederrak eta irisgarriak sortzea dela.
7. **Ekologistak Martxanekoek arabera, nolako izan beharko luke Bilboren peatonalizazioak?**
 - a) Helburu baino, bitarteko izan beharko luke hiritarrak erosoago mugitzeko.
 - b) Espazio atseginak sortu beharko lituzke, aisialdiarekin edo dendekin erlazionatuak.
 - c) Oinezkoek sarriren egiten dituzten ibilbide nagusiak kontuan hartzen dituenak.
8. **Ekologistak Martxanekoek arabera, zer ezaugarri izan beharko lituzke hiria ulertzeko beste modu horrek?**
 - a) Elkargune (tabernak, dendak...) asko egon behar dute jendea erakarri ahal izateko.
 - b) Erdigune aberatsetik eta turistikotik gertu egotea, atzerritarrek erakartzeko.
 - c) Jendearekin elkartzeko gunek izateaz gain, beste era bateko ibilbideak behar dira.
9. **Zertan oinarritu dira Ekologistak Martxanekoak proposamena egiteko?**
 - a) Herritarren joan-etorriak aztertuta, aurreko mugikortasun-espazioek sortzen zuten sarean.
 - b) Gaur egun bilbotarrek egiten dituzten joan-etorrietan, egituretan.
 - c) Herritarrek adierazitako desplazamenduen behar eta ezaugarrietan.

4. HE

IRAKURMENA

■ **3. ariketa: identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.**

Esan testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

ESKORBUTUA, LIMEYS ETA ODOL-ANALISIA

1746an, aurrerakuntza handi bat etorri zen James Lind izeneko itsas armadako mediku gazte eskoziar bat *Salisbury* errege-ontzira igo zenean.

Buruargia eta adimen zorrotzekoa zenez, moda, aurreiritziak, esamesak eta zurrumurruak baztertzea lortu zuen, eta logika eta arrazoizkotasun ikaragarriaz heldu zion eskorbutuaren madarikazioari. **1**

Lind itsas armadan egon zen aldian, Mantxako kanalean eta Mediterraneoan ibili zen, eta, *Salisbury* ontzia lurretik urrun inoiz egon ez zen arren, hamar marineletik batek eskorbutu-zantzuak zituen 1747ko udaberriko. **2**

Nork egiten zuen hobera eta nork okerrera behatuz, gai izango zen ebazteko zein tratamendu ziren eraginkorrak eta zein alferrikakoak. Hori bistakoa dela irudituko zaigu, agian, baina oso muturreko berrikuntza zen hori ordura arteko medikuntza-tradizioan.

Maiatzaren 20an, eskorbutuak neurri berean jotako hamabi marinek identifikatu zituen Lindek; denek zituzten “hortzoi ustelduak, orbainak eta makaltasuna, eta hanketako ahulezia”. **3**

Hala, proba zuzen bat bermatzen ari zen Lind, paziente guztiek gaixotasun-maila, egoteko toki eta janari antzekoak zituzten eta.

Marinelok sei bikotetan zatitu zituen gero, eta bikote bakoitzari tratamendu jakin bat eman zion. Lehen bikoteak galoi laurden bat sagardo hartzen zuen; bigarren bikoteak hogeita bost tanta bitriolo-elixir (azido sulfuriko) hartzen zituen egunean hirutan; hirugarren bikoteak, bi koilarakada ozpin egunean hirutan; laugarren bikoteak, pinta erdi bat itsasoko ur egunean; bosgarren bikoteak, baratxuriz, ziapez, errefau-sustraiz eta mirraz egindako pasta sendagarria; eta seigarren bikoteak bi laranja eta limoi bat hartzen zituen egunero. **4**

Bi gauza garrantzitsu argi utzi behar dira, aurrera jarraitu baino lehen. Lehenik, laranja eta limoiak emateko erabakia iritzira hartu zen. **5**

Linden garaian “medikuntza alternatiboa” terminoa existitu izan bazen, haren lankideek alternatibo etiketa jarriko zieten laranja eta limoiekin saiaturakoari; bada, teoria onargarri baten babesik ez zuen erremedio naturala zen, eta, beraz, ezin zen alderatu finkatuago zeuden medikuntza arautuekin.

Bigarren gauza garrantzitsua da Lindek ez zuela odol-ateratzerik egin saiakuntza hartan. **6**

Saiakuntza klinikoari ekin, eta Lind zain geratu zen zein marinek sendatzen zen ikusteko –norbaitek sendatuko bazen–. **7** Beraz, Lindek oso goiz ebaluatu behar izan zituen emaitzak.

Zorionez, emaitza oso agerikoa zen ordurako, limoiak eta laranja hartzen ari ziren marinek nabarmen egin baitzuten hobera, ia erabat sendatzeraino. Gainerako gaixo guztiek eskorbutuak jota jarraitzen zuten, baina sagardoa edaten ari zirenak hobekuntza txiki batzuk egin zituzten. Izan ere, egiteko moduaren arabera, sagardoak ere izan dezake C bitamina apur bat, eta horrexegatik gertatuko zen hori, ziur asko.

Aldagai batzuk kontrolatuz (ingurua eta dieta, kasurako), laranja eta limoiak zirela eskorbutua sendatzeko giltzarria frogatu zuen Lindek. Saiakuntzan oso paziente gutxi parte hartu zuten arren, lortutako emaitzak hain ziren harrigarriak, ezen konklusioek erabat konbentzitu zuten. **8**

Ernst, E. eta Singh, S.: © *Sendabide ala iruzurbide*, Elhuyar Fundazioa, 2010. Egokitua.

4. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa. Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

- A. Marinel gaixoen beste talde batek itsas dieta normalarekin jarraitu zuen; kontrol-talde bezala balio zuen, eta horiek ere behatzen ziren.
- B. Linden lehen erantzuna, ziur asko, marinelei garai hartako tratamenduetako bat ematea izango zen, baina beste ideia bat bururatu zitzaion: eta marinel batzuei besteei ez bezalako tratamendua ezarriz gero?
- C. Aspaldi batean, 1601ean, limoiek eskorbutuaren sintomak arintzen zituzten ustea zabaldu zen, baina XVIII. mendearen amaierako medikuei oso erremedio xelebrea irudituko zitzaaien fruta.
- D. James Lindek arrakasta izan behar zuen beste guztiek huts egin zuten tokian, munduko lehen saiakuntza kliniko kontrolatua izango zena ezarri baitzuen.
- E. Handik aurrera, gero eta gorabehera gehiago izan ziren, kapitain ausartek munduaren are urrunagoko puntuetara nabigatzen zuten eta.
- F. Ez zekien, inola ere, laranjek eta limoiek C bitamina zutenik edo C bitamina kolagenoa sortzen zuen osagai nagusia zenik, baina horrek ez zuen axola; tratamendu horrek sendatu egiten zuen, eta horixe zen garrantzitsuena.
- G. Gero, hamakak jarri zituen itsasontziko alde batean, denak leku berean, eta ziurtatu zuen guztiek gosari, bazkari eta afari berdina jasotzen zutela; hots, “dieta bat, guztientzat berdina” ezarri zuen.
- H. Saiakuntzak hamalau egun iraun behar zituen berez, baina sei egunen buruan ontzia fruta zitrikorik gabe geratu zen jada.
- I. Beste batzuek eskorbutua tratatzeko odol-ateratzea egokia zela pentsatuko bazuten ere, Lindek zalantza handiak zituen, eta benetako sendabidea dietari lotua egongo zen susmoa zuen.

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak								

4. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Kontuan hartu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Idatzi garbi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETTARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

■ 1. ariketa

Hartu kontuan gaia eta **idatzi**.
Idatzi 250 hitz gutxienez.

GAIA: Erakundeko zerbitzua hobetzeko eta zuen lana arintzeko asmotan, duela hilabete batzuk kanpoko enpresa bat azpikontratatu zenuten. Laster kontratua amaitu egingo zaio, eta nagusiak agindu dizu enpresa horren lana baloratzeko idatzi baten bidez, kontratua berritu edo ez erabakitzeke.

Idatzi zure iritzia, eta, besteak beste, bertan jaso egindakoaren laburpena, balorazio-txostenaren ondorioak eta proposamenak.

4. HE

IDAZMENA

- **2. ariketa:** idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako.
 - Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Aukeratu bat**, eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **idatzi iritzi-artikulua**.
 - Idatzi 250 hitz gutxienez.
 - Egin testu antolatua eta koherentea. Azaldu iritziak, garatu eta lotu daukazun ideiak. Hortaz, ez kopiatu besterik gabe lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenak.

1. testu-aipamena

UDALENTZAT ARNASA

Hainbat formula aztertu eta baztertu ondoren, azkenean atzo ados jarri ziren Foru Aldundia eta Gipuzkoako udalak: hiru urteko epea izango dute udalek Aldunditik jaso zutenaren laurdena bueltatzeko. Hasieran, 2010eko otsailean ziren Gipuzkoako udalak diru hori bueltatzekoak, baina udalek behin eta berriz ohartarazi zuten ezingo zutela horrenbesteko dirutza hain epe txikian bueltatu. Gainera, udalek ez dituzte interesak ordaindu behar izango. Bestalde, berritasun moduan eta orain arte ez bezala, gastu korronteari aurre egiteko zailtasun handienak dituzten udalak zorpetu ahal izango dira gastu korrontea finantzatzeko.

KORTABARRIA, L.: *Goiena*. 2009ko urria.
Egokitua.

2. testu-aipamena

MASKULINITATEAREN GOTORLEKUA

Lehenik eta behin, bazterketa justifikatzeko, elkarteek emakumeen inguruan estereotipoak eratu dituztela diote, hala nola: emakumeak gaitz guztien errudunak dira eta ez dituzte elkarte gastronomiko batean elkarrekin egoteko behar diren gizonen ezaugarriak. Adituen esanetan, estereotipoak ezartzen dira «bestetasuna» markatzeko eta hegemonia ezartzeko.

Hala, estereotipo horien bidez, elkarte gastronomikoa nolabait «etxetik babesteko» leku bihurtu nahi dute: leku eroso eta betebeharrak ahazteko, emakumeen aginduetatik alde egiteko eta, lanaren ostean, umore ona arnasteko. Eta, bestetik, inplizituki ulertzen da emakumeak definitzen dituzten ezaugarri horiek ez daudela gizonengan, eta are gehiago, gizonen kontrakoak diren ezaugarriak dituztela, hots, adiskidetasuna, konfiantza, lankidetzarako eta partekatze gaitasuna...

SOLABARRIETA, A.: *Berria*, 2010eko maiatza.
Egokitua.

3. testu-aipamena

ETXEA DESJABETZEA

Etenik ez duen drama bihurtu da. 2010. urtean 2.584 pertsonak jaso zuten Hego Euskal Herrian desjabetze-txostena, hau da, bankuekin duten zorra ezin ordainduta, etxebizitza galduko dutela adierazten dien dosierra. Berri-agentzia baten arabera, 2011n, urtarrila eta martxoa artean hipotekak ordaindu ezinik dauden 312 lagunen kontrako prozesu judizialak gauzatu dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. 3,4 desjabetze-txosten eguneko. Etxebizitza galtzea ekar dezakeen urratsa izaten da. Ez da datu kezagarri bakarra. Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2011ko urtarrilaren eta martxoaren artean 567 desjabetze-txosten erregistratu ziren Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. Eguneko sei.

Berria, 2011ko abuztua.
Egokitua

4. testu-aipamena

TRATU TXARRAK ADINEKOEI

Adinekoen kontrako tratu txarrak edo adinekoen tratu desegokia ikusezinak dira gizartearentzat eta haiekin lan egiten duten erakunde, enpresa eta langile askorentzat. Ia ez dago daturik, baina inkesta baten arabera, Arabako adinekoen % 5,4k jasotzen dituzte tratu txarrak.

Zer da adinekoei emandako tratu txarra? Ekintza edo ekintza falta oro, nahita edo nahi gabe, objektiboki egiaztatua edo subjektiboki sumatua, 65 urte edo gehiagoko pertsona bati osasunaren edo ongizatearen kaltea edo mehatxua eragiten diona. Familiar, komunitatean edo zahar-etxean gerta daiteke, eta arriskuan jartzen du adinekoaren osotasun fisikoa, psikikoa, segurtasun ekonomikoa, baita autonomia printzipioa edo pertsonaren gainerako funtsezko eskubidea ere.

GOIKOETXEA, J.: *Berria*. 2007ko otsaila.
Egokitua.

5. testu-aipamena

BETI DAGO DIRUA GERRARAKO

Finantza- eta ekonomia-krisiaren erdian, gobernu guztiek diote ez dagoela dirurik pentsioak mantentzeko, langabezia laguntzeko, hezkuntzarako, osasun-zerbitzuetarako... eta oso gogor murrizten ari dira gastu sozialak. Dena den, badago kapitulu bat inoiz ukitzen ez dena: gastu militarra eta armetarako inbertsioa. Estokolmoko Bakearen Ikerketarako Nazioarteko Institutuaren arabera, munduko gastu militarrek, 2009an, 1,5 bilioi dolarrak gainditu zituen (eguneko 4.200 milioi dolar), eta 2010ean handiagoak izan ziren eta 2011n ere joera gorakoa da. Gastu sozialak bat-batean murrizten dituzte, eta era berean, dirua dago gerrarako, diru asko... Eta biolentzia kondenaatzen dutela esaten dutenek aitortzen dute hori.

ARREGI, J.M.: *Argia*, 2011ko maiatza.
Egokitua.

6. testu-aipamena

LANPOSTUAK DESKRIBATZETIK GAITASUNEN ARABERA KUDEATZERA

Zer ari da aldatzen? Pertsonak enpresan betetzen duten rola ari da aldatzen. Jada ez da nahikoa zeregin batzuetan trebea izatea. Pertsona guztiek izan behar dute euren kabuz antolatzeko gaitasuna, lan egiteko duten modua hobetzeko, lanpostua baino harantzago heltzeko, norberaren lanpostuak besteekin dituen inplikazioak ulertzeko. Lanpostuen betiko deskripzioak lekua utzi dio gaitasunen araberrako kudeaketari. Lanpostuaren kontzeptu zurrinak ez ditu XXI. mendeko erakundeek behar dituzten malgutasuna eta moldakortasuna biltzen. Gaitasunarenak bai, ordea. Gaitasunaren kontzeptua jakintza eta trebetasun batzuk izatea baino harantzago doa. Gaitasuna eta trebetasuna jakintzaren gizartea eta gizarte-industria bezala uztartzen dira.

BURGOA, N.: *Lanabesa*, 2011ko urria.
Egokitua.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



4. HE / IRAKURMENA (A EREDUA)

- 1. ariketa: aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: «GURASOAK ETA SARE SOZIALAK»

1.	C	5.	C
2.	A	6.	B
3.	A	7.	B
4	B	8.	C

- 2. ariketa: aukera anitzeko galderak.
- Irakurgaia: «OINEZKO IZATEA, ESKUBIDEA»

1.	B	6.	B
2.	C	7.	A
3.	C	8.	C
4.	A	9.	B
5.	A		

- 3. ariketa: sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- Irakurgaia: «ESKORBUTUA. LIMEYS ETA ODOL-ANALISIA»

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak	D	B	G	A	C	I	H	F

E. aukera sobera dago.